



Egitaraua

MINTEGIAK. GIZARTE-KONPROMISOA IKERKETA AKADEMIKOKO LANETAN

Proiektua. *Euskal-kolonbiar artikulazioa hezkuntza emantzipatzailea eta elkarlaneko ikerketa kritikoa esperimendatzeko, ikasteko eta komunikatzeko*

Aurkezpena

Ekimen hau Hegoa Institutuko hezkuntza taldeak antolatu du, Hego Kolonbiako Unibertsitatearen (USCO) eta Cauca Unibertsitatearen (UNICAUCA) lankidetzarekin. Ekimenaren xedea da gizarte-eraldaketarekin konprometitutako unibertsitate baten inguruko eztabaida eta eraikuntza kolektiborako espazio parte-hartzaileak sortzea.

Hezkuntza kritiko eta emantzipatzaile hartzen dugu izaera hezitzaileko sozializazio kritiko zabala sustatzeko xedea duen hezkuntza. Hezkuntza horren bidez, alde batetik, tokiko eta nazioarteko testuingurua bere konplexutasun guztiarekin ulertzeko beharrezko jakintza bultzatukoda, eta bestetik, gizarte-aldaketarako ezagutza erabilgarria sortuko da, pertsona eta komunitate guztien eskubideak indartu eta emantzipazioarekin lotutako interesari erantzuteko irakurketa etiko eta eraldatzaileetatik abiatuta.

Eguno zibilizazio-krisia eragin handia du unibertsitatean ere. Horrenbestez, eztabaida bat mahaigaineratu behar da unibertsitateak gizarte-menderakuntza eta -eraldaketarako prozesuetan duen zereginari buruz, baita unibertsitateak sortutako ezagutza motarekin eta asetzen dituen interesekin duen harremanari buruz.

Enpresa eta kapilarekiko harremanak gero eta gehiago baldintzatzen du unibertsitateak sortutako ezagutza –globalizazio neoliberalaren testuinguruan–. Hori jakinda, ñabartu behar dugu azken hamarkadetan gizarte-aldaketarako beste ezagutza erabilgarri mota bat sortu eta aitortzera bideratutako mugimendu batzuk ari direla sortzen pixkanaka, eta horiek gure garaiko desfioei erantzuteko gai dira.

Ildo horretan, Mintegi hauek hausnarketarako eta proposamenak egiteko lan-espazio bat eskaintzea dute helburu, Gradu Amaierako Lanekin eta Master Amaierako Lanekin (GAL/MAL) ezagutza kritiko eraldatzailea sortzeko asmoz.

Funtsean gradu eta graduondoko ikasleei zuzendutako Mintegiak diren arren, unibertsitateko irakasleei, GGKE erakundeei eta gizarte-kolektiboari ere zuzendua dago, hots, hezkuntza kritiko emantzipatzailearen esanahira hurbildu eta GAL/MAL lanetan proposamen hori hedatu nahi dutenentzat.

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca



Helburuak

- › Euskadi eta Kolonbiako subjektu ezberdinen artean (ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak) topaketa, elkarrizketa eta gogoetarako espazio bat bultzatzea, errealitatea kritikoki ulertzeko, arazoan ebazpenean parte hartzeko eta ikerketa-jarduna beste mundu posible batzuen ekarpenarekin lotzeko.
- › Ikasleen GAL/MAL lanetan hezkuntza kritikoaren ikuspuntua ziurtatzeko jarraibide pedagogiko eta metodologiak eraikitzea elkarren artean.
- › Irakasleen rolari buruzko gogoeta sortzea, beren laneko eta biziko testuinguruarekin eta, horrenbestez, beren ezagutza sortzeko testuinguruarekin lotuta. Gizarte-aldaketarako, ezagutza esanguratsua sortzeak nolako garrantzia duen aztertzea.
- › Beste lurralde batzuetako ikasle eta irakasleen esperientzia eta interesak aitortzea, eta beste begirada eta erreferente epistemologikoetarako jarrera irekia izatea.
- › Elkarlaneko ikerketa-prozesuetan parte hartzen duten Iparraldeko eta Hegoaldeko kolektiboen arteko artikulazioa.

Lan-metodologia

Metodologia praktikoa eta parte-hartzailea da nagusiki. Edukien inguruko prestakuntzara eta horiek baitaratzera zein elkarren arteko irtenbideak bilatzeko gogoetara dago bideratua. Lantaldeak osatuko ditugu, GAL/MAL lanen proposamen bakoitza modu pertsonalizatuan jorratzeko eta prozesua elkarrizketaren bidez eta elkarren artean eraikitzeko. Metodologia, hainbat jakintza-arlotara egokitua, ikasleen, irakasleen eta gizarte-kolektiboen esperientzian eta jakintzetan oinarritzen da.

Bertaratze-ziurtagiria

Parte-hartzaile guztiei bertaratze-ziurtagiria emango zaie (ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak), nahasitako hiru erakundeek sinatuta: EHUKo Hegoa Institutua, USCO eta UNICAUCA.

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca



Datak eta orduak

- 1. Mintegia. Birtuala. **2024, martxoak 1** (15:00-17:30)
- 2. Mintegia. Aurrez aurrekoa. **2024, martxoak 7** (10:00-14:00)
- 3. Mintegia. Birtuala. **2024, martxoak 15** (15:00-17:30)
- 4. Mintegia. Aurrez aurrekoa. **2024, martxoak 21** (10:00-14:00)
- 5. Mintegia. Aurrez aurrekoa. **2024, martxoak 27** (10:00-14:00)

Lekua

Lehenengo eta hirugarren mintegiak birtualak izango dira, beste guztiak aurrez aurrekoak:



Ganbara Aretoan, Basoko Etxean (UPV/EHU), Sarrikon.

Lehendakari Aguirre etorbidean, 81 znb. (Bilbao).

Izen-emateak

Izena emateko bidali posta elektronikoko bat helbide honetara: amaia_delrio@ehu.eus

Plaza mugatuak (gehienez 28 laguneko talde murriztua).

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca



1. Mintegia. Birtuala

Data: 2024/03/01

Iraupena: 15: 00-17: 30

- › Ongietorria, prozesuaren eta programaren aurkezpena
- › Zertarako ikertu nahi dugu?
- › Gure testuinguru eta lurraldetik egindako ikerketa (Hegoa, UNICAUCA eta USCO-ren arteko eztabaida)
- › 1. fitxaren eta irakasle eta gizarte-kolektiboentzako fitxaren aurkezpena. Hurrengo pausoak

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca





LEKUA: Ganbara Aretoa, Basoko Etxea (Sarrikoko Campusa, EHU)

2. Mintegia. Aurrez aurrekoa

Data: 2024/03/07

Iraupena: 10: 00-14: 00

- › Hezkuntza eta ikerketa kritikoaren oinarriak eta proposamenak
- › Ikasleen GAL/MAL-en proposamenen aurkezpena
- › GAL/MAL-en oinarrizko egitura (I. zatia)

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca



3. Mintegia. Birtuala

Data: 2024/03/15

Iraupena: 15: 00-17: 30

- › **Akademia eta Gizarte-mugimenduak artikulatzen dituzten ikerketa-prozesuak (Kolonbia)**
 - Colectivo cultural cacique yaguilga
- › **Ikerketa kritikoarekin eta bizitzarekin konprometitutako unibertsitate baten eraikuntzarekin lotutako esperientzia esanguratsuak (Euskadi)**
 - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Justicia Alimentaria – Bidezko elikadura, Economistas Sin Fronteras, Bidez bide, Lumaltik Herriak
- › **Kolonbiako eta Euskadiko gizarte-kolektiboen arteko trukea eta artikulazioa**

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca





LEKUA: Ganbara Aretoa, Basoko Etxea (Sarrikoko Campusa, EHU)

4. Mintegia. Aurrez aurrekoa

Data: 2024/03/21

Iraupena: 10: 00-14: 00

- > **GAL/MAL-en oinarrizko egitura (II. zatia)**
- > **Hezkuntza emantzipatzailearen printzipioekiko loturak, ikerketa-lan akademikoetatik abiatuta (I. zatia)**
 - Talde-lana. Bateratzea eta ekarpenak

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca



Mintegietan parte hartzen duten hizlariak

Axel Rojas	Antropologia Departamentuko irakasle titularra, UNICAUCA unibertsitatearekin lotuta duela hogeitun urte baino gehiagotik. Universidad del Valleko soziologoa eta maisua Universidad Javerianako Ikerketa Kulturaletan. Hezkuntza kulturazuzten aditua.
Diana Granados	Irakasle da UNICAUCA unibertsitatean eta emakumeen eskubideei, kulturarteko hezkuntzari eta herri indigenen eskubideei buruzko ikertzailea. Bake eta kultura politikako gaiak jorratzen ditu eta Etnografiako Tailerreko Ikerketa Haztegiko kide da.
Marcos Yule	Cecidic Komunitatearen Garapen Integralerako Hezkuntza, Gaikuntza eta Ikerketa Zentroko koordinatzailea. Ye 'ctey Neehnwe' sx, Toribioko Babesleku Indigenakoa, Cauca.
Julio R. Jaime	USCO unibertsitateko irakasle elkartua, doktore hautagaia Gizarte Zientzietan, Granadako Unibertsitateko Bake eta Gatazken kudeaketan aditua, In-SUR-Gentes ikerketa taldeko zuzendaria. Egun USCO unibertsitateko ikasketa errektoreordea da.
Robinson Piñeros	Soziologoa, Gizarte Zientzietan lizentziaduna, maisua Hezkuntzara bideratutako Gizarte Zientzietan (FLACSO, Argentina) eta Doktorea Geografian (UNESP, Brasil). USCO unibertsitateko irakasle eta ikertzailea.
Juanjo Celorio	EHUko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasle erretiratu. Hegoa hezkuntza-taldeko kidea. Hezkuntza emantzipatzaileari buruzko artikulu eta argitalpenen egile eta egilekidea.
Iris Murillo	Hegoa hezkuntza-teknikaria. Hezkuntza, komunikazio eta Lankidetzaren proiektuetan lan esperientzia du. Ikerketa Metodologia Feministari buruzko VI. Jardunaldien Talde Antolatzaileko kidea.
Amaia del Río	Hegoa hezkuntza-teknikaria. Unibertsitate-eremuan hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegia txertatzen saiatzen diren hainbat proiektuen arduraduna da. Aholkularitza- eta ikerketa-lanak egin ditu hezkuntzan eta feminismoetan.

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca

